



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 10a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako 8.000tik 20.000ra bitarteko biztanleko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako 8.000tik 20.000ra bitarteko biztanleko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko otsailaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak egin du Nafarroako 8.000tik 20.000ra bitarteko biztanleko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko fiskalizazio-txostena.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako 8.000tik 20.000ra bitarteko biztanleko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako 8.000tik 20.000ra bitarteko biztanleko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (4. or.).
 - III. Helburuak eta norainokoa (6. or.).
 - IV. Konklusioak eta gomendioak (7. or.).
 - IV.1. Administrazio elektronikoaren ezarpenaren egoera (7. or.).
 - IV.2. Amaierako konklusioa eta gomendioak (25. or.).
 1. eranskina. Udalei bidalitako galde-sortaren laburpena (27. or.).
 2. eranskina. Administrazio elektronikoaren ezarpenaren adierazleak (33. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (34. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (36. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz, 8.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan administrazio elektronikoa (AE) ezartzeari buruzko txostena eginen zuela jaso zuen bere urteko fiskalizazio programan.

Kontuen Auzitegiaren eta autonomia erkidegoetako kanpo kontrolako organoen (OCEXen) arteko koordinaziorako batzordeak 2019ko urriaren 18an erabaki zuen modu koordinatuan fiskalizazioa administrazio elektronikoaren ezarpenaren egoera 20.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

Kontuen Ganberak erabaki zuen Kontuen Auzitegiarekin lankidetzan aritzea eta fiskalizazio txostena egitea. Txostenaren emaitzak, beste OCEX batzuek eta auzitegiak berak egindako beste fiskalizazio batzuenekin batera, erakunde horrek eginen duen txosten bateratuan jasoko dira.

Txostenak lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarren atalean administrazio elektronikoaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta irismena azaltzen dira; eta laugarrenak konklusio eta gomendio nagusiak jasotzen ditu.

Gainera, bi eranskin daude: udalei bidalitako galde-sortaren laburpena, eta administrazio elektronikoak udaletan duen ezarpen mailari buruzko adierazle multzo baten laburpena.

Landa-lana 2021eko azaroan eta abenduan egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Jarduketa honen emaitzen berri eman zitzaizkien Antsoain, Aranguren, Berriozar, Burlata, Lizarra, Noain, Tafalla, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udalei, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Lurralde Kohesiorako Departamentuari, egokituz jotzen zituzten alegazioak egin zitzaizkien, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ezarritako epean alegazioak aurkeztu dituzte Antsoaingo, Noaingo eta Tafallako udaletako alkateek.

Lan hau egiteko emandako laguntza eskertu nahi diegu honako erakunde hauetako langileei: Nafarroako toki entitateak, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia, Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia, Animsa informatika enpresa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF).

II. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

Europako Batzordearen arabera¹, honela definitzen da administrazio elektronikoa: informazioaren eta komunikazioen teknologiak (IKT) erabiltzea administrazio publikoetan (AAPP), antolaketaren aldatetekin eta langileen gaitasun berriekin loturik, helburu izanik zerbitzu publikoen kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea, prozesu demokratikoak indartzea eta politika publikoei laguntzea.

Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea abiapuntua izan zen benetako administrazio digitala eratzeko, hura izan baitzen administrazio elektronikoa izaera orokorrekin arautu zuen lege-mailako lehenbiziko araua, esparru homogeneoa ezarri zuena hiru maila administratiboentzat.

Jokaleku berria, zeinean tramitazio elektronikoa administrazio publikoen ohiko jarduna izan behar baitu, erabat gauzatu dute Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APEL) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (SPAJL), interesdunen eta administrazioen arteko komunikazio elektronikoa eskubide gisa taxutuz, baita, zenbait kasutan, betebeharrak gisa ere. Administrazioek prozeduren tramitazioan nola erabili behar dituzten bitarteko elektronikoa adierazten da, eta jakinarazpen elektronikoen araubide berria ezartzen da.

Legegileak, araudi hori betetzeko zailtasunak izanzen zirela sumatuta, aplikazio eraginkorrerako neurritzko epeak ezarrarazi zituen. Hain zuzen, 39/2015 Legeak 2016ko urriaren 2an hartu zuen indarra, oro har, baina administrazio elektronikoa dagozkion zenbait aurreikuspenen indarra hartzea geroratzat joan da 2021eko apirilaren 2ra arte. Egun horretan hartu zuten indarra administrazio elektronikoa buruzko azken aurreikuspenek, eta gai hauek arautzen dituzte: erregistro elektronikoa, ahalordeen erregistro elektronikoa, gaitutako langile publikoen erregistroa, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa, eta artxibo elektronikoa bakarria.

2021eko martxoan indarra hartu zuen 203/2021 Errege Dekretuak, zeinaren bidez onetsi baitzen sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua. Arau horrek modu global eta bateratuan arautzen du nola jardun behar duen sektore publikoak bitarteko elektronikoez, bai administrazio publikoen barnean eta bai administrazioek elkarrekin eta herritar zein enprekin dituzten harremanetan ere. Erregelamendu berean garatu dira Administrazio Publiko Digitalarekin zerikusia duten alderdi guztiak, APEL eta SPAJL legeetan aurreikusitakoak.

Estatuan, diputazioen edo pareko erakundeen betebeharrak da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (TAOL) 36. artikuluan ezartzen duenez, administrazio elektronikoko zerbitzuak ematea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Hala, 36. artikuluan hau dio:

“36.1 art. Diputazioen berezko eskumenak dira, gai honetan, herri-ekintzako arlo guztietan Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeek egotzitakoak; nolana ere, hauek:

*...
g) Administrazio elektronikoko zerbitzuak ematea eta kontratazio zentralizatua egitea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan.”*

Nafarroan, araudiak ez du hitzez hitz jasotzen betebeharrak hori, baina Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak (TAFL) 62. artikuluan dio Administrazioak laguntza eta lankidetzak juridiko, ekonomiko, administratibo eta teknikoko zerbitzuen ematea bultzatuko duela.

¹ Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako Komunikazioa, 2003ko irailaren 26koa, administrazio elektronikoa Europaren etorkizunean duen egitekoari buruzkoa. COM (2003).

“62. artikulua

Foru Komunitateko Administrazioak laguntza eta lankidetzaren juridiko, ekonomiko, administratibo eta teknikoko zerbitzuen ematea bultzatuko du, beharrezkotzat jotzen dituen lanabesen bitartez toki entitateen kudeaketa-ahalmena indartzeko. Ondorio horietarako, zerbitzu horiek kasuko eskualdeak bere gain hartzea sustatuko da.”

Kontuan izan behar da TAOLen 31.2.a) artikulua probintzia-diputazioen helburu zehatz eta berezkozat ezartzen duela *“udalerrien arteko elkartasuna eta oreka printzipio bezala bermatzea”* eta, bereziki, *“probintziako lurralde osoan udalerrien eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”*. TAOLen 36. artikulua eta TAFLen 62. artikulua bidez eraginkortasuna eman nahi izan zaio biztanle kopuru txikia edo ertaina duten udalerriek beren gain hartu ezin dituzten zerbitzu batzuen prestazioari, kasu honetan administrazio elektronikoko zerbitzuei.

Beraz, NFKA da bermatu behar duena Nafarroan udal eskumeneko zerbitzuen prestazio integrala eta egokia, behar duten babesa emanez 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei, administrazio elektronikorekin zerikusia duten zereginetan.

Nafarroako 272 udalerrietatik 268k dituzte 20.000 biztanle baino gutxiago eta lauk baino ez dute gainditzen atalase hori: Barañainek, Eguesibarrek, Tuterak eta Iruñak; azken horren biztanleria Nafarroako biztanleria osoaren herena da.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Hona hemen lan honek izan dituen helburuak:

- Aztertzea nola lagundu dien Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA), administrazio elektronikoaren arloan, 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten Nafarroako udalei.
- Aztertzea nola bete diren NFKAk administrazio elektronikoko zerbitzua emateko dituen aurrekontu programak udalerrri horietan.
- Baloratzea ea administrazio elektronikoa eraginkortasunez ezarri den 8.000 eta 20.000 biztanle arteko bederatzi udalerrietan.
- Legez ezarritako betebeharrekin zerikusia duten oinarrizko alderdiak aztertzea, datuen babesari buruzko araudia, Segurtasun Eskema Nazionala eta Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala betetzeari dagokionez.
- Ebaluatzea zer nolako hobekuntza ekarri duen administrazio elektronikoaren ezarpenak, prozedurak herritarrentzat eskuragarriak izateko.

2019ko urtarrilaren 1ean 8.000 eta 20.000 biztanle bitarte zituzten udalak izan dira aztergai txosten honetan.

Lana egiteko, fiskalizaziopeko bederatzi udalei galde-sorta (1. eranskina) bidali zitzairen 2021eko lehen hiruhilekoan. Kontuen Auzitegiak prestatutako galde-sorta da, eta Nafarroarako egokituta dago.

Biztanle kopurua 2019ko urtarrilaren 1ean (2020-02-14ko NAO, 31. zk.)	Udalerrria
Burlata	19.096
Zizur Nagusia	14.894
Lizarra	13.810
Aranguren	10.859
Antsoain	10.833
Tafalla	10.595
Berriozar	10.426
Atarrabia	10.204
Noain (Elortzibar)	8.320

Bidalitako galde-sortan 2020ko ekainaren 30eko egoeraz galdetu zen, baina gerora 2021eko ekitaldira arte luzatu dugu denbora-tartea.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Administrazio publikoen erantzukizuna

Administrazio publikoek herritarrei bermatu egin behar diete Administrazioekin harreman elektronikoak izateko eskubidea, SPAJLn eta APELen ezarritakoaren arabera. Beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarri behar dituzte, eskubide hori egoki gauza dadin.

Alde batetik, fiskalizazio honetan aztertutako toki entitateetako bakoitzak erantzukizuna du bere baitan administrazio elektronikoa ezartzeari dagokionez. Bestetik, NFKAk erantzukizuna du Nafarroako toki entitateei administrazio elektronikokoaren arloan ematen dien laguntzari dagokionez.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da konklusioak ateratzea txosten honen esparru subjektiboan sartutako udalek administrazio elektronikokoaren arloan duten ezarpen mailari buruz eta legea betetzei buruz.

Horretarako, fiskalizazioa egin da kanpo kontrolako erakundeek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioak aplikatuz, zeinak ISSAI-ES arauetan ezarrita baitaude, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoa ere.

Printzipio eta gidalerro horiek eskatzen digute baldintza etikoak betetzea, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du lortutako konklusioei funtsa emateko.

IV.1. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENAREN EGOERA

IV.1.1. Administrazio elektronikoa ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntzarekin

NFKAk ez du egin Nafarroako udaletan administrazio elektronikoa ezartzearen egungo egoerari buruzko azterketarik, baina Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia horretan ari da gaur egun.

Txosten honen II. atalean esan dugun bezala, Nafarroan NFKAk bermatu behar du administrazio elektronikoko zerbitzuen prestazio integral eta egokia.

Horretarako, NFKAk bi lankidetzaren hitzarmen sinatu ditu; lehenbizikoa Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin (MINHAP), administrazio elektronikoko oinarritzko konponbide teknologikoak elkarri emateko. Bigarrena Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalarekin (FNMT), toki entitateen eta menpeko erakunde autonomoen sinadura elektronikokoaren ziurtapeneko zerbitzuak emateko.

2020ko abenduaren 31n, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalen ehuneko 46 zeuden atxikita NFKAren eta MINHAPen arteko hitzarmenari, eta ehuneko 72 NFKAren eta FNMTren arteko hitzarmenari.

Bestalde, 2020an NFKAk dirulaguntzen deialdia onetsi zuen Nafarroako udal guztietan administrazio elektronikoa ezartzeko (100.000 euro). Dirulaguntzaren xedea izan zen langileak trebatzea eta administrazio elektronikoko softwarearen plataformak ezarri eta integratzea. Azkenik, baita eman eta 100.000 euroko laguntza ordaindu zitzaizen 71 udali. Beste 71 eskatzailek ez zuten dirulaguntzarik jaso, kreditu baliagarria agortu egin zelako.

2021ean beste deialdi bat onetsi da Nafarroako toki entitateei administrazio elektronikoa ezartzeko edo hobetzeko dirulaguntzak emateko (200.000 euro). Guztira 114 udal eta mankomunitateri

eman zaie laguntza, 193.338 euro. Laginean sartu diren bederatzi udalek 25.964 euro jaso dituzte guztira, zenbateko diruz lagungarria 52.150 izanik.

Azkenik, 2021ean bi lantalde sortu dira, bata juridikoa eta bestea teknikoa, NFKaren, NUKFren eta zenbait udalen artean, toki entitateetan administrazio elektronikoki bultzada ematea helburu. Orain arte talde juridikoan zazpi bilerak egin dira. Lankidetzak giroa sortu da, lanerako metodoak onetsi da, prozeduren katalogo baten proposamena prestatu da, eta fluxuak, txantiloak eta ereduak partekatu dira. Talde teknikoan atariko bilerak egin dira eta lanerako plana prestatzen ari da.

IV.1.2. Alderdi orokorrak, antolaketa eta langileak

Lagineko udal guztiak lankidetzak-hitzarmenetara atxiki dira administrazio elektronikoko oinarriko konponbideak elkarri emateko eta sinadura elektronikoen ziurtapen zerbitzuak emateko.

Administrazio elektronikoko zerbitzuak enpresa publiko bati egindako enkarguaren bitartez ematen dira zortzi udaletan, eta beste udal batek kontratua dauka estatu eremuko enpresa pribatu batekin.

Udal guztiek dute onetsia administrazio elektronikoki buruzko ordenantza.

Bederatzi udaletan administrazio elektronikoki buruzko prestakuntza eman da 2019ko urtarrietik 2020ko ekainera bitartean. Hona hemen, taula batean, zenbat pertsonak eta zenbat orduz jaso duten prestakuntza, udalez udal:

Udala	Prestakuntza jasotako langileak 2019	Prestakuntza orduak 2019	Prestakuntza jasotako langileak 2020-01-01etik 06-30era	Prestakuntza orduak 2020-01-01etik 06-30era	AEko langileak	Prest. orduak/plantilla ratioa 2020-06-30ean
Antsoain	5	32	3	18	1	0,49
Aranguren I.	7	38	3	18	ED	0,62
Berriozar	2	12	2	12	3	0,26
Burlata	12	79	6	32	4	0,51
Lizarra	22	202	2	10	3	1,70
Noain	21	84,5	11	74,75	1	2,90
Tafalla	2	18	5	28	0	0,44
Atarrabia	6	26	8	48	4	0,66
Zizur	14	18	1	6	0	0,23

Aldi osoan, guztira, langile bakoitzeko emandako prestakuntza orduen ratioan, Noain nabarmentzen da 2,90 ordurekin langile bakoitzeko, bai eta Lizarra ere, 1,70 ordurekin langile bakoitzeko. Gainerako udaletan ratioa batetik beherakoa da.

Administrazio elektronikoko eginkizunak esleituak dituzten langileak azken aurreko zutabearen ageri dira. Burlatako Udalak baino ez dauka IKTen arloko teknikari bat.

Azkenik, udal bakoitzak administrazio elektronikoen ezarpenari buruz egindako plangintzari dagokionez, Atarrabiak baino ez ditu egin fasekako jarduketak plana eta plan horren jarraipenari buruzko urteko oroitidazkia.

IV.1.3. Administrazio elektronikoaren ezarpena udalean

Aztertu dugu ea udalek ba ote zuten administrazio elektronikoarekin lotutako tresna sorta bat. Tresna horietakoren bat falta bazen, hura ezartzeko aurreikuspenaz galdetzen zizaion udalari.

Taula honetan agertzen da jasotako erantzunen laburpena:

Zerbitzua	Antsoain	Aranguren I.	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Egoitza elektronikoa (SPAJL, 38. art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Identifikazioa eta sinadura (APEL, 9. eta 10. art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Jakinarazpena elektronikoa (APEL, 41.1 art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Espediente elektronikoa (APEL, 70. art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Datu-bitartekaritzarako plataforma (APEL, 28.2 art.)	Partziala	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan	Prozesuan
Herritarraren Karpeta (APEL, 53.1 art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Datuak egiaztatzea/egiaztapen kode seguruak (APEL, 27.3 art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai
Artxibo elektronikoa (SPAJL, 46. art.)	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Artxibo elektronikoa bakarra (SPAJL, 17. art.)	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Sarbide-puntu nagusi elektronikoa (APEL, 13.a art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erregistro elektronikoa (APEL, 16. art.)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erregistroen arloko Laguntza Bulegoa	Partziala	Partziala	2021: partziala	2021: partziala	Partziala	Bai	Partziala	Partziala	2021: partziala
Ahalordeen erregistro elektronikoa (APEL, 6. art.)	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
Gaitutako funtzionario publikoen erregistroa (APEL, 12.3 art.)	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Faktura elektronikoa (25/2013 Legea, abenduaren 27koa, sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen erregistroa sortzeari buruzkoa)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai

APELeko eta SPAJLko xedapenek 2021eko apirilaren 2an hartu zuten indarra honako gai hauetan: sarbide-puntu nagusi elektronikoa, erregistro elektronikoa, ahalordeen erregistro elektronikoa, gaitutako enplegatu publikoen erregistroa eta artxibo bakarra.

Egun horretan udal batek ere ez zuen ez artxibo elektronikorik, ez artxibo elektronikoa bakarrik, ez gaitutako funtzionario publikoen erregistroa. Noaingo Udalak baino ez du ahalordeen erregistroa.

Datu-bitartekaritzarako plataformari dagokionez, Antsoaingo Udalak bazeukan prozeduraren bat alta emanda 2016tik, eta gainerako udalak prozedurak baimentzeko eta alta emateko prozesua egiten ari dira. Alegatu dute, ordea, prozesua korapilatsua dela 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalentzat eta MINHAPen erantzuna oso motela dela.


Erregistroen arloko laguntza bulegoetara dagokienez, Noain egokituta dago, eta gainerako udalak egokitzeko prozesuan ari dira. Dagoeneko denek egiten dituzte araudian ezarritako funtzioetako batzuk.

Azkenik, udalek egiten dituzten izapide batzuen tramitazio elektronikoan 2020ko abenduaren 31rako lortutako mailari buruzko adierazleen laburpena jaso dugu txosten honen 2. eranskinean.

Egoitza elektronikoa

Udal guztiek dute egoitza elektronikoa, kanpoko kontratazioaren bidez ezarria, eta bertan identifikatu egiten dituzte eskura dauden zerbitzuetarako irispideak.

Egoitzaren erabilera maila neurtzeko, biztanle bakoitzeko zenbat bisita egiten zaizkion begiratu dugu. Hona hemen xehetasunak:




2020an Burlatako, Lizarrako eta Tafallako udalen egoitzen erabilera nabarmentzen da. 2018an Tafallako eta Atarrabiako egoitzetan bakarrik erregistratzen zituzten bisitak, eta 2019tik aurrera, batez ere 2020an, bisita kopuruaren igoera orokorra ikusten da. Nolanahi ere, beste udal batzuek 2018an eta 2019an beren egoitzetan bisitarik erregistratu ez izanak ez du esan nahi bisitarik izan ez zutenik, baizik eta ez zituztela zenbatu.

Identifikazioa eta sinadura

2020ko ekainaren 30ean udal guztiek onartzen zituzten interesdunen identifikazioa eta sinadura elektronikoa, ziurtagiri elektronikoaren bidez. Hala ere, dagoeneko denek dute CI@ve sistema, hau da, herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea modu seguruan bateratu eta erraztea helburu duen sistema edo plataforma.

Kasu guztietan udalek bazituzten egoitza elektronikoaren ziurtagiria, identifikaziorako, eta zigilu elektronikoa / egiaztapen kode segurua, sinadurarako. Sinatzeko sistematzat, udal langileek auto-sinadura sistema erabiltzen dute –Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak garatutako aplikazioa–, bai eta Animsa sigdesk sistema ere.


Oro har, sinadura/ziurtagiri elektronikoa duten udal langileen kopurua handituz joan da, grafiko honetan agertzen den bezala:



Sinadura edo ziurtagiria duten langileen kopuru handiena Noaingo eta Tafallako udalek dute, eta txikiena Lizarrako Udalak, bertan bost langilek baitute sinadura elektronikoa.

Jakinarazpen elektronikoa

Udal guztiek egiten dituzte jakinarazpen elektronikoak, eta, oro har, horien erabilera hedatuz joan da 2018tik 2020ra bitartean, honako grafiko honetan azaltzen den moduan:



Lizarrako, Zizur Nagusiko eta Noaingo udaletan 2020an egindako jakinarazpenen ehunekoa nabarmentzen da: hurrenez hurren, ehuneko 60, 53 eta 50.

Espediente elektronikoa

Beren prozedurak espediente elektronikoaren bidez izapidetzeko sistemaren ezarpenean, udal batzuk aurrerago daude besteak baino, beheko taulak erakusten duenez:

Arloa	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Idazkaritza	√	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	√	Partziala	Partziala	Partziala
Kontratazioa	Partziala	√	√	√	Partziala	√	—	Partziala	—
Kontu-hartzailletza	Partziala	—	Partziala	Partziala	Partziala	√	—	Partziala	—
Diruzaintza	Partziala	—	Partziala	Partziala	Partziala	√	Partziala	Partziala	—
Diru-bilketa	√	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	√	Partziala	Partziala	—
Erregistro Orokorra	√	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	√	Partziala	Partziala	—
Zerbitzu Teknikoak	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	√	Partziala	Partziala	Partziala
Giza Baliabideak	Partziala	—	Partziala	Partziala	Partziala	√	—	Partziala	—
Gizarte Zerbitzuak	—	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	Zerb. mankomunatu	—	Partziala	—

Udal guztiek dute espediente elektronikoa 2018ko urtarrilaren 1etik, Noaingo Udalak izan ezik, berak 2019tik baitu.

Tresnaren erabilerari dagokionez, Noaingo Udala nabarmentzen da, kudeatzen dituen prozedura guztietan ezarri baitu espediente elektronikoa. Gainerako udaletan nahiko zaila da prozedura bakoitza tipifikatzea, eta ondorioz ezarpen maila apalagoa da. Arlo batzuetan oraindik ez dute espediente elektronikoa erabiltzen.


Hala ere, ez dakigu udalek kudeatzen dituzten espediente guztien gainean zenbateko portzentajea egiten duten izapidetutako espediente elektronikoek.

Administrazio elektronikoa bultzatzeko sortutako lantaldeak, IV.1 atalean aipatuak, helburuetako bat du prozeduren tipifikazio hori egitea, hura eskatzen duten toki entitateen eskura jartzeko.

Herritarraren Karpeta

Udal guztiek dute Herritarraren Karpeta. Tresna horren bitartez espedienteen tramitazio egoera ikus daiteke, jakinarazpen elektronikoak jaso, erregistratutako dokumentuak kontsultatu eta zergen (lurraren gaineko kontribuzioa, TMIZ, udal gainbalioa, EJZ), tasen eta prezio publikoen inguruko kudeaketak egin.


Herritarraren Karpetara 1.000 biztanleko egindako bisitak jaso dira honako grafiko honetan:



Azpimarratzekoak dira Tafallako Udalak eta neurri txikiagoan Zizur Nagusiko Udalak izandako bisiten kopuru handiak. Bi kasuetan horrek zerikusia du erroldan 2019. urteko hauteskundeak zi-rela-eta egindako kontsultekin.

Datuak egiaztatzea/Egiaztapen kode segurua

Udal guztiek dituzte kopia elektronikoen egiaztapenerako tresnak. 2018tik 2020ra arte urtean egindako egiaztapenen kopurua gorantz joan da, behean erakusten den bezala:




Oro har, 2020an gehikuntza oso handia nabari da, eta azpimarratzekoa da Burlatako Udaleko egiaztapenen kopurua. Udal hori 2019an hasi zen tresna erabiltzen. Noingo Udalak ez digu datu-rik eman, baina erabili egiten du tresna hori.

Sarbide-puntu nagusi elektronikoa

Sarbide-puntu nagusi elektronikoa deritzon atariak erraztu egiten ditu herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak, zerbitzu publikoak Internet bidez eskuratu daitezzen.

Udalerrri bakoitzean 1.000 biztanleko bisiten ratioa kalkulatu dugu, eta grafiko honetan ageri da emaitza:



Udal guztiek dute sarbide-puntu nagusi elektronikoa. Tafallako eta Atarrabiako udaletan 2018an hasi ziren erabiltzen, eta gainerakoetan 2019an. Oro har, igoera garrantzitsua ikusi da 2020an, baina bisita gehien izan dituzten bi udalek aurreko urtean baino gutxiago izan dituzte.


Erregistro elektronikoa

Udal guztiek dute erregistro elektronikoa 2016. urtetik edo lehenagotik. Lizarrako eta Noingo udalek tresnaren hornitzailea aldatu dute 2020an eta 2019an, hurrenez hurren.

Noingo Udala baino ez zegoen Erregistroen Interkonexiorako Sistemara (SIR) atxikita 2020ko ekainean. Udal horrek badu erregistro-aplikazio ziurtatua erregistroko idazpen elektronikoak SIR sistemaren bidez trukatzeko.

Gainerako udalek Erregistro Zerbitzuen Kudeaketa Integratua (GEISER) plataforma eta Erregistro Birtualeko Bulegoa (ORVE) erabiltzen dituzte SIRekin konektatzeko, baina 2020ko ekainean oraindik ez zeukaten konexio hori; gerora konektatzen joan dira.

Herritarrek gero eta gehiago erabili dute erregistro elektronikoa 2018tik 2020ra bitartean, bide elektronikotik egindako sarreraren ehunekoaren bilakaerak erakusten duenez:




Ez dago Lizarrako 2018ko eta 2019ko daturik ez Noingo 2018ko daturik, tresna informatikoa aldatu dela-eta. 2020an, Noingo Udaleko sarreraren ehunekoa nabarmentzen da.

Faktura elektronikoa

Udal guztiek daukate ezarrita faktura elektronikoaren erabilera FACE plataformaren bidez (Estatuko Administrazio Orokorreko faktura elektronikoaren sarbide-puntu nagusia), eta guztietan sartzen dira FACE atarira zuzeneko sarbide bat erabiliz egoitza elektronikoa edo Udalaren web orrian.

Hurrengo grafikoan erakusten dugu zenbat faktura izapidetu diren sistema horren bitartez azken hiru urteetan:



Lizarrako Udalak ez digu jakinarazi zenbat faktura erregistratu diren FACE bidez 2018an.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatu eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoak, 12.3 artikuluan ezartzen duenez, barne-kontrolako organoek urtean behin sistemen auditoria egin behar dute fakturen kontabilitate-erregistroei buruz. Udal batek ere ez du egiten auditoria hori.

IV.1.4. Administrazio elektronikoen beste osagai batzuk

Atal honetan galderak egin dira administrazio elektronikoen esparruko Segurtasun Eskema Nazionalarekin (ENS) zerikusia duten oinarrizko alderdiei buruz eta datuen babesarekin lotutako araudia betetzeari buruz, eta, azkenik, galdetu da ea udalak gune fisikorik alokatu duen entitatearen zerbitzariak kokatzeko edo zerbitzariren batean lekua alokatu duen entitatearen informazioa eta dokumentazioa biltegitzeko.

Segurtasun Eskema Nazionala

2020ko ekainaren 30ean, lagineko udal bakar batek ere ez zeukan onetsita bitarteko elektronikoen erabileraren inguruko segurtasun politika, Administrazio elektronikoen esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen dena.

Segurtasun Eskema Nazionalari begira erakundearen kategoria zehazteko azterketarik ere ez du bakar batek egin.

Gaur egun, lagineko udaletatik zortziri Animsa enpresa publikoak ematen dizkie administrazio elektronikoko zerbitzuak. Enpresa horrek "Segurtasun Bulegoa" sortu du, eta horren barnean batzorde bat sortu dute enpresak berak eta Nafarroako hamabi udalek; horietako lau auditoriako laginean daude.

Segurtasun Bulegoaren helburua da Segurtasun Eskema Nazionala ezartzea hala erabakitzen duten Nafarroako udaletan. Bulegoa elkarlanean ari da Inteligentzia Zentro Nazionalaren menpeko Kriptologia Zentro Nazionalarekin. Gaur egun gobernantza esparruaren definizioaren atariko fasean ari dira, eta 2022ko martxotik aurrera sistema ezartzen hastekoak dira.

Datu pertsonalak babestea

Udal guztiek, Noingoak izan ezik, datuen babesaren ardura duen delegatu bat izendatu dute.

Udal guztiek, Noingoak izan ezik, beren web orrietan argitaratzen dute datu pertsonalen tratamendu jardueren erregistroa, eta datu pertsonalen tratamenduen arriskuaren azterketa egin dute.

Neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeari dagokionez, Lizarrako eta Noingo udalek erantzun dute ez dutela ebaluaziorik egin. Gainerakoek bai, kanpoko enpresa batekin kontratatutako auditoriaren bidez edo autoebaluazioaren bidez.

Hosting-a/Housing-a

Antsoain, Aranguren, Berriozar, Burlata, Tafalla, Atarrabia eta Zizur Nagusiko udalek badute hodeian ostatatze zerbitzua, administrazio elektronikoko zerbitzuak enkargu bidez ematen dizkien enpresa publikoaren zerbitzariarena. Guztiek dituzte ostatatze zerbitzuak web, domeinu eta posta elektronikoko kontuetarako. Hodei pribatu horrek ENSren baldintzak betetzen ditu, eta jasorik dago adostasun ziurtagiria lortu duela 2019an eta 2021ean.

Noingo eta Lizarrako udalek hosting zerbitzua kontratatu diote administrazio elektronikoko zerbitzuak ematen dizkien enpresa pribatuari.

Zerbitzu horren kostua honako hau izan da 2020an:

Udala	Zenbatekoa
Antsoain	5.187
Aranguren Ibarra	5.374
Berriozar	4.550
Burlata	10.573
Lizarra	3.760
Noain	AEaren barnean
Tafalla	6.545
Atarrabia	6.567
Zizur Nagusia	6.474

Noingo Udalak adierazi du administrazio elektronikoko zerbitzuen kontratuan sartuta daukala hosting zerbitzua, eta, beraz, ez duela kostu bereziaren daturik.

IV.1.5. Sare sozialak, irisgarritasuna eta wifia

Sare sozialak

2020ko ekainaren 30ean, udalek profil aktiboak zituzten honako sare sozial hauetan:

Sare soziala	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Facebook	√	√	√	√	√	√	√	√	√
Twitter	√	√	—	√	—	√	√	√	√
Instagram	—	—	—	√	—	√	—	√	√
Whatsapp	√	—	√	√	—	√	—	—	√
You Tube	√	—	—	√	—	√	√	√	√

Sare sozialetako profilen eta argitalpenen kudeaketa udal langileek egiten dute Antsoainen, Berriozarren, Burlatan eta Atarrabian. Lizarran eta Tafallan udaletik kanpoko langileek egiten dute kudeaketa hori, eta Aranguren eta Zizur Nagusian, berriz, kasu batzuetan udal langileek egiten dute eta beste batzuetan kanpoko langileek.

Herritarren intereseko udal informazioa eta jardueren eta ekitaldien agenda argitaratzen dituzte, oro har.

Sare sozialen irisgarritasuna

Udalek irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuan xedatutakoa bete behar dute (sektore publiko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko errege dekretua).

Hona betekizunetako batzuk: irisgarritasunaren arduraren izenaren duen unitatea izendatzea; webguneek eta gailu mugikorretarako aplikazioek irisgarritasun baldintzak betetzea; iradokizunak eta kekek helarazteko mekanismoa; neurrigabeko zamarengatik betebeharretik salbuesteko justifikazio-txostena; edo halako jarduketarik egin ez izanaren urtean behingo aitortpena.

Hona hemen udalen egoeraren laburpena:

Zerbitzua	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Irisgarritasunaren ardura izanen duen unitatea izendatzea	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Webguneen irisgarritasun baldintzak betetzea	√	√	√	√	√	√	√	√	√
Gailu mugikorren irisgarritasun baldintzak betetzea	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Urteroko irisgarritasun txostena	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Irakokizunak, kexak eta irisgarritasun baldintzen ez-betetzeak jakinarazteko mekanismoa	√	√	√	√	√	√	√	√	√

Kasu guztietan webguneen irisgarritasun baldintzak betetzen dira, eta, halaber, irakokizunak, kexak eta irisgarritasun baldintzen ez-betetzeak jakinarazteko mekanismoak daude. Gainerako galderetan erantzun guztiak ezezkoak izan dira.

Wifi sareak

Udal egoitzetan edota erabilera publikoko eremuetan hari gabeko sareak langile publikoen edo herritarren eskura egoteari buruzko emaitzak honako taula honetan jaso dira:

Zerbitzua	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Udal egoitzetan hari gabeko sareak egotea langileen konexiorako	Bai	Bai	Bai	Partziala	Partziala	Bai	Ez	Partziala	Ez
Udal egoitzetan hari gabeko sareak egotea herritarren konexiorako	Partziala	Partziala	Partziala	Partziala	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez
Udalerriko leku jakin batzuetan hari gabeko sareak egotea herritarrentzat	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Ez	Bai

Oro har, udalek badituzte hari gabeko sareak udal langileen eta herritarren konexiorako, Antsoainen izan ezik. Zenbait entitatek erantzun dute eskuragarritasun partziala dutela, alegia, sarea ez dagoela eskuragarri udal egoitzetan.

Herritarrentzako sareak, berriz, Burlatako, Noaingo eta Zizur Nagusiko udalek baino ez dituzte.

IV.1.6. COVID-19aren ondorioak

2019ko abenduaren 31n udaletako batek ere ez zuen onetsia urrutiko laneko edo telelaneko neurrien inguruko erabakirik eta, beraz, langile publiko batek ere ez zituen bere eginkizunak araubide horretan betetzen.

Alarma egoerak iraun zuen bitartean (2020ko martxotik ekainera arte) udal guztiek ezarri zituzten telelaneko neurriak langileentzat, baina ez ziren kasu guztietan hartu gaiari buruzko erabaki formalak. Zenbait kasutan, lan araubide hori langile guztientzat ezarri zen arlo jakinetan, eta beste batzuetan, berriz, langileetako batzuentzat edo txandaka ezarri zen.

Beheko taulan erakusten dugu udal bakoitzean zenbat langile dauden guztira eta itxialdian zenbaterik jardun zuten telelaneko araubidean:

Gaia	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Langile kop. 2020-03-14an	116	78	93	198	125	54	134	112	97
Telelaneko langileak, alarma egoerak iraun bitartean (2020-03-14tik 2020-06-20ra)	15	6	12	45	25	10	33	39	23
Telelaneko langileen ehuneko	% 13	% 8	% 13	% 23	% 20	% 19	% 25	% 35	% 24
Telelanean bitarteko informatiko pertsonalak erabili zituzten langileak	14	5	11	40	0	8	1	38	22
Telelaneko langileen kop. 2020-12-31n	3	0	6	10	0	0	0	12	0

Batez beste, langileen ehuneko 21 aritu ziren telelaneko araubidean alarma egoerak iraun bitartean. 2020ko abenduaren 31n, ordea, lan gehiena berriz ere presentziala zen eta beren eginkizunak telelanaren bidez betetzen aritutako langileen ehuneko 15ek bakarrik jarraitzen zuten araubide horretan.

Beren eginkizunetan telelaneko araubidean aritu ziren langile gehienek beren bitarteko informatiko pertsonalak erabili zituzten, Lizarrako Udalean izan ezik.

Telelanaren aplikazioa desberdina izan zen udal arlo batetik bestera, xehakapen honen arabera:

Arloa	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Idazkaritza	P	E	P	O	O	O	P	P	P
Kontratazioa	P	E	P	O	O	O	P	O	O
Kontu-hartzailatza	P	O	P	O	O	O	P	O	O
Diruzaintza	P	O	P	O	O	O	P	O	O
Diru-bilketa	E	O	P	O	O	O	P	O	O
Erregistro Orokorra	E	P	P	O	O	O	E	P	O
Zerbitzu Teknikoak	E	P	P	O	O	O	P	P	O
Giza Baliabideak	P	-	P	O	O	O	P	P	E
Gizarte Zerbitzuak	P	E	-	P	P	O	P	P	-

P= Partziala; O= Osoa; E= Ezer ez

Lan telematikoen ezarpenerako, udalek honako inbertsio hauek egin dituzte bitarteko teknikoe-tan:

Inbertsioa	Antsoain		Aranguren		Berriozar		Burlata		Lizarra		Noain		Tafalla		Atarrabia		Zizur Nagusia	
	Kop.	Zenb.					Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.	Kop.	Zenb.
Ordenagailu eramangarriak											11	12.770	5	4.278				
Monitoreak													5	1.064			2	431
Telefono mugikorak															2	300		
Beste batzuk (suebakiak, telelaneko lizentziak, urrutiko konexioak, bideo konferentzien sistema...)		980		1.088		2.288		6.927		300				16.347		6.000		4.085
Kostua, guztira		980		1.088		2.288		6.927		300		12.770		21.689		6.300		4.516

Pandemiaren ondorioz lan telematikoetara egokitu beharrak izan zuen kostuan alde handiak ageri dira entitateen artean.


Gehienek hautatu duten konponbide teknikoak izan da entitatearen ekipamenduak urrutitik kontrolatzeko programak erabiltzea. Berriozar eta Lizarrako kasuetan sare pribatu birtualeko konexioa (VPN) izan da erabiltzeko konponbidea.



Azkenik, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez onetsitako presako neurri osagarriei dagokienez, neurri horietan kide anitzeko organoei ahalmena eman zitzaizen urrutitik bilkurak egin eta erabakiak hartzeko; bada, honako udal hauek baliatu dute neurri hori, taulan jaso dugun bezala:

Kide anitzeko organoa	Berriozar		Burlata		Lizarra		Tafalla		Atarrabia		Zizur Nagusia	
	Alarma e.	Gero	Alarma e.	Gero	Alarma e.	Gero	Alarma e.	Gero	Alarma e.	Gero	Alarma e.	Gero
Osoko Bilkura	–	–	√	√	√	√	–	–	√	√	√	√
Tokiko Gobernu Batzarra	–	–	–	–	√	√	–	–	√	–	√	√
Kontratazio mahaiak	–	–	–	–	√	√	–	–	–	–	–	–
Informazio batzordeak	–	–	√	–	√	√	–	√	–	–	√	√
Bozeraileen Batzarra	√	–	–	–	√	√	–	–	–	–	√	√
Beste batzuk	–	–	√	√	–	–	–	–	–	–	√	√

IV.1.7. Administrazio elektronikoen ezarpenaren ondorioak ingurumenean

Administrazio elektronikoa udaletan ezartzeak eta gehiago erabiltzeak, a priori, material kontsumigarrietan eta posta zerbitzuan gutxiago gastatzea dakar. Grafiko hauetan jaso dugu udalek paperean, tonerrean eta posta zerbitzuan egindako gastuaren bilakaera:





Noingo Udalak azaldu du derrigorrezko diru-bilketa bere gain hartu eta horretarako baliabide berekiak erabili dituelako handitu direla kontsumoak 2019an.

Aranguren Ibarreko eta Noingo udaletan, agiriak artxibatzeke erabiltzen ziren zenbait toki hustu egin dira eraikin administratiboetan; gainerako udaletan ez.

IV.2. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

Hona hemen konklusio nagusiak:

- Toki sektore publikoak 702 toki entitate biltzen ditu: 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta udalen 22 batasun.

Nafarroako udalen ehuneko 69k dituzte 1.000 biztanle baino gutxiago, eta tamaina txiki horrek badu eragina zerbitzuen prestazioan, oro har, eta administrazio elektronikoko zerbitzuetan, zehazki.

Lagineko udalei egindako inkestetan jaso diren ohar batzuek NFKAren aldetik laguntza instituzional, ekonomiko eta tekniko handiagoa behar dela diote.

- NFKAk ez du azterlanik egin Nafarroako toki entitateen administrazio elektronikoko zerbitzuen beharrei, ezarpen mailari eta egungo egoerari buruz.

NFKAk 2020an eta 2021ean egindako dirulaguntza-deialdiek toki entitateen portzentaje txiki bati eragin diote, eta ordaindutako diru kopuruak urriegiak dira administrazio elektronikokoaren ezarpena benetan eta eraginkortasunez sustatzeko.

- Fiskalizatutako udaletako bakoitzak bere kabuz heldu die APEL eta SPAJL legeek administrazio elektronikokoaren arloan ezarritako eskakizunei. Baliabide materialak eta langileak xedatzen dira behar bezalako plangintzarik gabe eta AEko zerbitzuen ezarpenerako lehentasunik ezarri gabe. Gainera, ez zaio jarraipenik egiten herritarren eskura jarritako zerbitzuen erabilera mailari.

- Toki entitateek beharrezkotzat jotzen dute elkarri lagundu eta elkarlanean aritzea, eta teknologiak batera erabiltzea, administrazio elektronikokoaren arloko betebeharretan eraginkortasun eta efizientzia handiagoak lortzeko.

- Auditoretzapeko udaletan ikusi da administrazio elektronikokoarekin lotutako tresna hauek ezarpen maila onargarria dutela: egoitza elektronikoa, identifikazioa eta sinadura, jakinarazpen elektronikoa, espediente elektronikoa, herritarren karpeta, datuen egiaztapena, sarbide-puntu nagusi elektronikoa, erregistro elektronikoa eta faktura elektronikoa.

Datu-bitartekaritarako plataforma eta erregistroen arloko laguntza bulegoak ezarpen prozesuan daude, eta, azkenik, ezarri gabe daude zerbitzu hauek: artxibo elektronikoa, artxibo elektronikoa bakarra, ahalordeen erregistroa eta gaitutako funtzionario publikoen erregistroa.

- Oro har, digitalizazio maila apala da zergen kudeaketari dagokionez, eta aurreratuagoa tasa eta prezio publikoekin eta dirulaguntzekin zerikusia duten izapideetan. Burlatako Udalak lortutako maila nabarmentzen da.

Egin dugun lanean iritsi ditugun konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari

- *Nafarroako toki entitateek administrazio elektronikokoaren ezarpenaren arloan dituzten beharren azterketa egitea, haien egungo egoera ezagutzeko.*

- *Administrazio elektronikoko zerbitzuen ezarpena sustatzea, estrategia orokorra zehaztuz, eta zerbitzu horiek eraginkortasunez eta bete-betean inplementatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta teknologikoak toki entitateen eskura jartzea, eskalako ekonomien lorpena ahalbidetuz.*

- *Herritarrek administrazio elektronikoa erabil dezaten sustatzea.*

Toki entitateei

- *Barne-antolaketa egokitzea, amaitu gabeko prozesuak amaitzea eta kudeatzen diren prozeduren tramitazio telematikoa aurrera egitea haien fase guztietan.*

- *Administrazio elektronikoko zerbitzuak gehiago erabil daitezten sustatzea eta abian diren edo etorkizunean eginen diren ekintzen jarraipenerako sistemak ezartzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta eman da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. UDALEI BIDALITAKO GALDE-SORTAREN LABURPENA

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
Orokorra
Hasita al zegoen administrazio elektronikoaren ezarpena Udalean 2020ko ekainaren 30ean?
Nafarroako Gobernuaren laguntzarik jaso al duzue udalerrian administrazio elektronikoaren ezarpen osoa edo partziala egiteko?
Udalak ba al zuen 2020ko ekainaren 30ean administrazio elektronikoaren arloko araudi indardunik (ordenantzak, erregelamenduak, zirkularrak edo prozedurari buruzko eskuliburuak)?
Udala atxikita al dago Administrazio Elektronikoko Oinarrizko Konponbideak Elkarri Emateko Hitzarmenera (PMSBAE)?
Udala atxikita al dago GEISER/ORVE plataformara, erregistro elektronikorako eta SIR sistemarako sarbide gisa?
Udala atxikita al dago Herritarrentzako Arretarako Bulego Integratuen Sarera?
Nafarroako Gobernuarekiko harremanak
Uste duzu Nafarroako Gobernuak administrazio elektronikoaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak zuen beharretarako egokiak direla?
Nafarroako Gobernuak egin al du inolako ebaluaziorik administrazio elektronikoa Udalean inplementatzeari buruz?
Antolaketa eta langileak
Udalak zenbat langile dituen, guztira, 2020ko ekainaren 30ean
Nola betetzen diren Udalean administrazio elektronikoaren ezarpenarekin, mantentzearekin, kudeaketarekin edo jarraipenarekin zerikusia duten zereginak.
2020ko ekainaren 30ean zenbat langilek zituzten berriazko eginkizunak administrazio elektronikoaren ezarpenarekin, mantentzearekin edo jarraipenarekin lotuta
2020ko ekainaren 30ean Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako (IKT) zenbat teknikari zeuden administrazio elektronikoaren ezarpenarekin, mantentzearekin edo jarraipenarekin lotuta
Administrazio elektronikoa ezarri baino lehen, egin al du Udalak azterlanik, haren ezarpenak antolaketaren, langileen eta teknikaren aldetik zer beharrian sortuko dituen zehazteko?
Egokitu al da Udalaren antolaketa administrazio elektronikoa bertan ezartzeak sortutako beharrezanetara?
2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean, eman al zaie prestakuntzarik Udaleko langileei, administrazio elektronikoarekin lotutako aplikazio edo sistema berriak erabiltzeko?

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
Ezer egin al da Udalaren zerbitzu elektronikoen erabilera herritarren artean sustatzeko?
Udalak egiten al du jarraipen jarduketarik ikusteko nola erabiltzen dituzten herritarrek haren zerbitzu elektronikoak?
Ezarri diren administrazio elektronikoko zerbitzuak
Egoitza elektronikoa (SPAJL, 38. art.)
Identifikazioa eta sinadura
Jakinarazpena elektronikoa (APEL, 41.1 art.)
Espediente elektronikoa (APEL, 70. art.)
Sarbidea datu-bitartekaritzarako plataformara (APEL, 28.2 art.)
Herritarren karpeta (APEL, 53.1 art.)
Datuak egiaztatzea/egiaztapen kode seguruak (APEL, 27.3 art.).
Artxibo elektronikoa (SPAJL, 46. art.)
Artxibo elektronikoa bakarra (SPAJL, 17. art.)
Sarbide-puntu nagusi elektronikoa (APEL, 13.a art.)
Erregistro elektronikoa (APEL, 16. art.)
Udalak egokitu al ditu Erregistro Orokorreko bulegoak Erregistroen arloko Laguntza Bulego izateko?
Ahalordeen erregistro elektronikoa (APEL, 6. art.)
Gaitutako funtzionario publikoen erregistroa (APEL, 12.3 art.)
Faktura elektronikoa (25/2013 Legea, abenduaren 27koa, sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen erregistroa sortzeari buruzkoa)
Kontratazio zentralizatua
Segurtasun Eskema Nazionala
Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak Segurtasun Eskema Nazionala arautzen du administrazio elektronikoen esparruan. Ba al du entitateak dekretu horren 11. artikuluan aipatzen den segurtasun politika jasotzeko dokumenturik, bitarteko elektronikoen erabilera dela-eta?
Esleitu al dira Udalean informazioaren, zerbitzuaren, segurtasunaren eta sistemaren ardura-dun rolak?
Zer kategoriatan dago Udala Segurtasun Sistema Nazionalari dagokionez?
Egin al da Segurtasun Sistema Nazionala betetzeari buruzko auditoriarik, goiko eta erdiko kategorietako sistemarako, edo Segurtasun Sistema Nazionalan eskatzen den betetze-autoebaluazio edo betetze-auditoriarik, beheko kategorietako sistemarako?
Ematen al ditu Udalak Segurtasunaren Egoerari buruzko Txostena egiteko datuak INES tresnaren bitartez, 2016ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez onetsitako Segurtasun Jarraibide Teknikoa betetz?
Izan al du Udalak segurtasun gorabeherarik bere sistema, sare eta terminal informatikoetan azken hiru urteetan?

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala
Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako zer plataforma edo konponbidera zegoen atxikita Udala 2020ko ekainaren 30ean?
Udalak sortu al ditu informazio administratiboaren direktorioa (SIA) eta unitate organiko eta bulegoena (DIR3)? Hala egin badu, egunean ditu?
Udalak administrazio elektronikoko konponbideren bat baldin badu beste administrazio publiko batzuen sistemak berrerabiliz sortua ez dena, adierazi ea konponbide horrek Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalaren eskakizunak betetzen dituen.
Datuen babesa
Nor izendatu duzue Udalean Datuen Babesaren arloko delegatu?
Jakinarazi al zaie haren izendapena autonomia-erkidegoko Datuak Babesteko Bulegoari eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, bat etorri Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 34.3 artikularekin?
Udalak ba al du tratamendu jardueren erregistrorik, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan ezarri bezala?
Egin al dira arrisku azterketak, entitateak datu pertsonalekin egiten dituen tratamenduei buruz? Eta inaktuaren ebaluazioak, arrisku handiko tratamenduetarako?
Udalak ebaluatzen eta egiaztatzen al du neurri tekniko eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna?
Housing-a: Udalak alokatu al du gune fisikorik "datu-zentroren" batean, entitatearen zerbitzariak segurtasun maila goreneko ingurune batean edukitzeko?
Hosting-a: Udalak alokatu al du tokirik zerbitzariren batean, entitatearen informazioa eta dokumentazioa biltegitzeko?
Sare sozialak, irisgarritasuna eta wifia
Sare sozialak: Udalak ba al du sare sozialetan kontu aktiborik 2020ko ekainaren 30ean? Zeinetan?
Irisgarritasuna
Toki entitatean zein izendatu duzue webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunerako unitate arduradun? (1112/2018 ED, 16. art.)
Adierazi noraino betetzen diren Udalaren webguneen irisgarritasun baldintzak, irisgarritasun adierazpenaren arabera bete beharrekoak (1112/2018 ED, 15. art.)
Adierazi noraino betetzen diren Udalaren gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasun baldintzak, irisgarritasun adierazpenaren arabera bete beharrekoak (1112/2018 ED, 15. art.)

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
Egin al da irisgarritasunari buruzko urteko txostena, webguneen eta mugikorretarako aplikazioen irisgarritasun baldintzak betetzen ote diren berrikusi ondoren, 1112/2018 EDaren 17. artikuluan ezartzen den bezala?
Udalak ba al du komunikaziorako mekanismoren bat iradokizunak eta kexak aurkeztea ahalbidetzen duena, bai eta irisgarritasun baldintzen edozein ez-betetze jakinaraztea eta eman gabeko informazioa eskatzea ere?
Wifi konexioa
Udal egoitzetan ba al dago hari gabeko sarerik udal langileen konexiorako?
Udal egoitzetan ba al dago hari gabeko sarerik bertaratzen diren herritarren doako konexiorako?
Udalak sortu al du hari gabeko doako sarerik udalerriko gunen batzuetan herritarrak doan konektatu ahal izateko?
Informazio ekonomikoa eta aurrekontuei buruzkoa
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2019an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2020an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Estatuaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2019an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Estatuaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2020an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Europar Batasunaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2019an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Europar Batasunaren dirulaguntzen edo bestelako laguntzen bidez Udalak 2020an bere administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Beste dirulaguntza eta laguntza batzuen bidez Udalak 2019an administrazio elektronikoko konponbidea ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa
Beste dirulaguntza eta laguntza batzuen bidez Udalak 2020an administrazio elektronikoko konponbidea ezartzeko eta mantentzeko jasotako zenbatekoa.
Definitu al da 2019ko eta 2020ko aurrekontuetan berriazko aurrekontu programa eta aplikaziorik Udalean administrazio elektronikoa ezartzeko eta mantentzeko?
Hornitzaileek kontratu bidez Udalarari emandako administrazio elektronikoko zerbitzuei dagokien urteko gastua, 2019
Administrazio publikoek Udalarari emandako administrazio elektronikoko zerbitzuei dagokien urteko gastua, 2019

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
COVIDaren ondorioak
Hornitzaileek kontratu bidez Udalarari emandako administrazio elektronikoko zerbitzuei dagokien urteko gastua, 2020
Administrazio publikoek Udalarari emandako administrazio elektronikoko zerbitzuei dagokien urteko gastua, 2020
Udalean 2019ko abenduaren 31n ba al zegoen erabakiren bat indarrean, udal langileek bitarteko elektronikoko eta telematikoko erabiliz urrutitik lan egiteko neurriak (telelana) ezartzeari buruzkoa?
Adierazi 2019ko abenduaren 31n Udaleko zenbat langilek betetzen zituzten beren eginkizunak telelanaren araubidean
Adierazi zenbat langile zituen Udalak 2020ko martxoaren 14an, Espainian alarma egoera dekretatu zen egunean
2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitartean, Espainian alarma egoera dekretatu zen aldian, Udalak erabakirik hartu al zuen udal langileek bitarteko elektronikoko eta telematikoko erabiliz urrutitik lan egiteko neurriak (telelana) ezartzeari buruz?
Adierazi zer arlotan egin zen telelana 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitartean, Espainian alarma egoera dekretatu zen aldian
Adierazi zenbat langilek bete zituzten beren eginkizunak telelanaren araubidean Espainiako alarma egoerak iraun zuen bitartean (2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitartean)
Alarma egoera 2020ko ekainaren 20an amaitu zenetik, hartu al zen beste erabakirik urrutiko laneko aldia luzatzeko?
2020ko martxoaren 14tik aurrera urrutiko lana ezartzeko, Udalak inbertsiorik egin behar izan al du bitarteko tekniko gehigarrietan, hala nola ordenagailu eramangarri edo antzekoetan?
Lana urrutitik egiten zuten langileek, izan al zuten etxetik aplikazio, karpeta, fitxategi eta abarretarako sarbidea, bulegoan baleude bezala, VPN edo horrelakoren baten bidez?
Adierazi zenbat langilek jarraitzen duten beren eginkizunak telelanaren araubidean betetzen 2020ko abenduaren 31n
Adierazi zer konponbide tekniko hautatu den telelana egiteko
2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitartean, Udaleko ordezkariak eta gobernu organoen eta kide anitzeko beste organo batzuen bilkurak eta erabakiak urrutitik egin edo onetsi al dira, bitarteko elektronikoko eta telematikoko erabiliz, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren babesean, zeinak aldatu baitzuten Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua?
2020ko ekainaren 20tik aurrera, jarraitu al duzue kide anitzeko organoen bilkurak urrutitik egiten, bitarteko elektronikoko eta telematikoko erabiliz?

UDALENTZAKO GALDE-SORTA
Ingurumen gaiak
Posta zerbitzuan 2019an gastatutako zenbatekoa (aitortutako betebeharrak)
Posta zerbitzuan 2020an gastatutako zenbatekoa (aitortutako betebeharrak)
Udalaren eraikin administratiboetan agiriak artxibatzeko erabilitako tokirik hustu al da administrazio elektronikoa ezarri eta gero?
Udalak ba al du cloud computing zerbitzurik (hodeiko zerbitzua), berak kontratatuta nahiz Nafarroako Gobernuak eskainita?
Erantsi, halakorik baldin bada, Udalak "zabor elektronikoa" (CPUak, inprimagailuak, disko gogorak eta abar) birziklatzeko ezarritako protokoloa.

2. ERANSKINA. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENAREN ADIERAZLEAK

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN EZARPENA

0 maila: egoitza elektronikoan ez dago izapideari buruzko informazioirik
 1. maila: egoitza elektronikoan izapideari buruzko informazioa besterik ez dago
 2. maila: izapidea egiteko bete behar diren inprimakiak deskargatzen ahal dira

3. maila: betetako inprimaki edo eskabideak egoitza elektronikoaren bidez bidaltzen ahal dira

4. maila: tramitazio osoa egiten ahal da (ordainketa barne, ordaindu behar denean)

Zenbait izapideren tramitazio elektronikoan 2018-2020 bitartean lortutako maila, 2020ko abenduaren 31n	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Udal zergen izapideak: ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ)	2	2	1	3	1	1	1	2	1
Udal zergen izapideak: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (TMIZ)	2	2	3	3	1	1	1	2	1
Udal zergen izapideak: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2	3	3	3	0	1	1	2	1
Udal zergen izapideak: ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ)	2	2	0	3	0	2	1	2	1
Udal zergen izapideak: hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	2	2	0	1	0	1	1	2	1
Zenbait izapideren tramitazio elektronikoan 2018-2020 bitartean lortutako maila, 2020ko abenduaren 31n	Antsoain	Aranguren	Berriozar	Burlata	Lizarra	Noain	Tafalla	Atarrabia	Zizur Nagusia
Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobe-txamendu berezira tasaren izapideak	3		0	4	3	2	0	3	1
Obra lizentziak lortzeko izapideak	3	4	4	3	3	2	3	3	1
Establezimenduak irekitzeko lizentziak lortzeko izapideak	3	4	4	3	3	2	1	3	1
Erroldako izapideak (altak, bajak, bizileku aldaketak)	3	3	2	3	3	2	3	3	1
Kultura eta prestakuntza jardueretan (lantegiak, ikastaroak) parte hartzeko izapideak	3	2	3	4	0	4	3	3	1
Kirol jardueretan parte hartzeko izapideak	3	2	1	4	0	1	0	3	1
Laguntza eta dirulaguntzekin zerikusia duten izapideak	3	2	2	4	0	2	0	3	1

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak Nafarroako 8.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruz egin duen behin-behineko txostenerako ekarpenak

2022ko otsailaren 2an 2022-0030 zenbakiko ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako 8.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena, eta horren berri eman zen, otsailaren 8ra arte alegazioak egin ahal izateko.

Aipatu biztanleria duten toki entitateetan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko datuen kuantifikaziotik harago, eta gomendioei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

Lehenik, toki entitate gehienentzat zaila da datuen ekarpena zehaztasunez osatzea, ez dutelako behar bezala gaitutako langilerik informazio hori ustiatzeko eta, horrenbestez, hura eskatu bezala prestatu eta aurkezteko. Horrek, zalantzarik gabe, datuen homogeneizaziorako zailtasuna sortzen du; are zailtasun handiagoa, kontzeptu edo termino batzuk beti neurri berean erabiltzen ez direnean edo udal langileen ezagutzaren norainokoaren neurrian prestatzen eta aurkezten direnean. Langile horiek, berriz ere ohar-tarazten dugu, ez dira espezialistak hainbeste ertz dituen arlo korapilatsu honetan.

Bigarrenik, datuek ez dituzte islatzen langile publikoen higadura eta kostua, aldaketa handi honi ekin behar baitiote, kasu gehienetan, inolako orientazio edo tresnarik gabe, ez bada aldaketari ekiteko banakako borondatea, baina gaia ez ezagutzeak eragiten dituen zalantzekin; hala, haren ezarpena lortzen inondik ere laguntzen ez duten estres egoerak eta tirabirak sortzen dira.

Hirugarrenik, detektatu eta behin-behineko txostenean jaso diren gabeziez harago –haiexek dira egindako gomendioen xede–, kontuan izan behar dugu honako hau:

Administrazio elektronikoa errealitate bat da, betebeharrak eta herritarrek exijitzen ahal duten eskari bat; hala ere, gaur egun, bete gabeko zor edo eginbehar bat da Nafarroako Administrazio Publiko osoan, ez bakarrik Toki Administrazioan, azken horrentzat behin-behineko txostenak islatzen duen bezala.

Administrazio elektronikoen ezarpenak eskatzen dituen bitartekoak, baliabideak eta ezagutzak falta ditugu administrazio gehienetan eta, neurri handiagoan, toki administrazioetan. Dagoeneko eskuratuak eta ezarriak behar genituen, baina horretan hasi berriak gara, behin-behineko txostenean agertzen den moduan.

Administrazio publiko guztiek arlo honetan arazo berak eta premia berak dituzte neurri handiagoan edo txikiagoan, eta zalantzarik gabe eta ezinbestez konponbide berak erabiltzera jo behar dute, elkarri lagundu eta baliabideak eta ezagutzak partekatu, Administrazio Publikoaren eredu berri bat, bizkorragoa, eraginkorragoa eta eskuragarriagoa, eratzera eraman behar gaituen erronka garrantzitsu eta eskerga honi elkarrekin heldu ahal izateko.

Ez gara ari administrazio bakoitzaren berriazko behar edo helburuez edo administrazio bakoitzak legegintzaldirako duen proiektu propioaz; Administrazio Publikoari eman beharreko egiturazko mekanismoez ari gara, erantzuna eman diezaien herritarrei, buruzagiek dituzten eskala eta helburu politikoak gorabehera. Ez gara ari politikaz edo interes alderdikoiez, kudeaketaz ari gara, herritarrei laguntzeaz haien eskubideak bermatuz administrazio publikoekiko harremanetan.

Kontua da, azken batean, Administrazio Publikoaren egiturazko eta presako beharrezan larri bati erantzuna ematea.

Horretan ez dugu bakarka ibili behar, elkarrekin lan egin behar dugu eta Administrazio berri horren oinarriak ezarri, zeina, ondorio hauetarako eta egungo globalizazioa kontuan hartuta, berdina baita Tafallako udalean zein Corteskoan, Murillokoan, Egueskoan, Burlatakoan, Antsoangoan edo Iruñekoan, adibide gutxi batzuk jartzearren. Herritarrei arreta elektronikoa berdina zor zaie Nafarroako udal guztietan, hala exijitzen ahal dute, eta ezin da hori ukatzeko aitzakia izan gure udal gehienek baliabide urriak izatea.

Egungo arauak aldarrikatzen dute pertsonak eskubidea dutela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremanak izateko, eta premiatzen dute informazioaren eta komunikazioen teknologia berriak (IKTak) gehiago erabiltzera, baina nekez bermatzen ahal dira eskubide horiek baldin eta

administraziook ez bagaude bermatzeko prestatuta. Zenbait arlotan hemeretzigarren mendean bezala jarraitzen dugu, besaurre-mahukak jantzita eta “itzul zaitez bihar” esaten.

Herritarrek eskubidea dute administrazio publikoekin harremanak izateko, hori segurtasunez egiteko, eta Administrazio Publikoak eskubide hori berma diezaien. Halaber, administrazioek harremanak izan behar ditugu gure artean.

Agintari publikoek baliabiderik gabe, akatsik gabeko makineria egokirik gabe proiektuei ekitea oso zaila da, eta porrota ia erabat bermatuta dago. Erronka berriek premia horiei erantzutera behartzen gaituzte.

Zerbitzu digital erabilgarri eta eskuragarriak behar ditugu, bermatzeko, alde batetik, elkarrekin konektatutako administrazio elektronikoen eraginkortasuna eta efizientzia, eta, bestetik, herritarrek Administrazioarekin harreman digitalak izateko duten eskubideak eta betebeharrak beteko direla.

Bidea zaila eta luzea da, zalantzarik gabe, eta ezin da bakarka egin, norik bere aldetik, horrek dakarren nekearekin eta segurtasun faltarekin, ez garelako adituak arlo hauetan eta, beraz, helburua ez dagoelako segurtatuta.

Horren jakitun, gure gabeziez eta ezarritako eginbeharren tamainaz ohartuta, Espainiako Gobernuak martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua onetsi zuen, Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua onesten duena. Errege dekretu horren xedeetako bat da administrazio publikoen arteko lankidetzak eta teknologien eskualdatzea eta erabilera partekatua erraztea. Hala, administrazioei eskatzen die beren aplikazioak elkarri eskura jartzeko, haietako batek hala eskatuz gero; bai beren zerbitzuek garatutako aplikazioak eta bai kontratazioaren bidez lortutakoak ere. Estatuko Administrazio Orokorra badu aplikazioen direktorio orokor bat, aplikazioak askatasunez berrerabiltzeko (bidenabar, gainerako administrazio publikoek hura kontsultatu behar dute aplikazioak erosi aurretik); Foru Komunitateko Administrazioak baditu bere aplikazioak, eta gehienek toki entitateen premietarako balio dute; eta neurri txikiagoan toki entitateek ere badute aplikazioen bat.

Administrazio publiko guztien jarduna arautzen duen oinarriko printzipioetako bat da haien arteko lankidetzak, elkarlana eta koordinazioa, bai eta haien betebeharrak eta eginkizunak betetzeko eraginkortasuna eta efizientzia ere. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak dioenez, “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki entitateen arteko harremanen oinarri izanen dira koordinazioa, elkarlana, laguntza, eta elkarri informazioa ematea, bakoitzak dituen eskumen eremuak errespetatzen direla”. Horretarako behar diren mekanismoak ezartzen ahal dira; adibidez, helburu komunak lortzeko lankidetzak-hitzarmen egokiak adostu eta sinatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak legegintzaldirako ezarritako ildoetako bat da Foru Administrazioetik toki entitateei bultzada ematea administrazio elektronikoa ezartzeko prozesuetan (2019-2023 legegintzaldiko ekintza politikoko 3.12.5 jarduketa-ardatza). Laguntza lan horretarako, noski, ezinbestekoa da toki entitateek berek ere parte hartzea.

Toki Administrazioaren arloan eskumenak dituen departamentuak, aurrekoa betez, bi lantalde gidatu ditu toki entitateei administrazio elektronikoen ezarpenean eman beharreko laguntza martxan jartzeko. Lantalde horietako bat toki administrazioetako legetariak osatzen dute, eta haren helburua da entitate bakoitzaren informazioa biltzea, proiektuak partekatzea eta kudeaketa elektronikoen sistemak oraindik sartu gabe dauden prozeduretan lan egitea. Esperientzia horrek ahalbidetuko du baliabide gutxiago duten entitateei eskaintzea garatutako lana. Hori txalogarria da, eta lehen urratsa da lankidetzazko eredu batean, baina ez da nahikoa.

Hau da, elkarreragingarritasuna eta hainbat administrazioetan –Estatukoa, autonomia-erkidegoetakoak, beren departamentu eta eskumen guztiekin, eta tokikoa– dauden baliabideen aprobetxamendua lortzeko, halako inplikazioa eta lidergoa behar dira non Foru Administrazio osoak aritu behar baitu, eta ez bakarrik Toki Administrazioaren arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak, foru departamentu guztiei baliabideak ekartzeko jarraibideak ematen, behar bezala koordinatuta. Inguruabar hori bat dator Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenarekin, zeinean, beharren azterketa batetik abiatuta, administrazio elektronikoen ezarpena bultzatzen baita, estrategia globala zehaztuz eta dauden baliabideak esku-agarri jarritz.

Beste autonomia-erkidego batzuetan oso emaitza pozgarriekin egin den bezala, Nafarroako Foru Komunitateak, eta ez bakarrik Toki Administrazioaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak,

toki entitateekin, ANIMSarekin eta sistema informatikoen beste hornitzaile batzuekin lankidetzan, eraldaketa teknologiko digitalaren prozesu hau gidatu behar du, bere baliabide berekiak erabiliz (Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia; TRACASA, esperientzia luzea baitu erakundeak eta administrazioak modernizatzeko konponbide eta sistema digitalak garatzen eta eskaintzen; NASERTIC, edo arlo horietan eskumena duen beste edozein erakunde menpeko), lankidetzak-hitzarmenak sinatuz teknologia berri horien garapenerako erakundeekin edo elkargo ofizialekin, Euskal Autonomia Erkidegoak egin duen bezala, eta Europako funtsak proiektu bakarrera bideratuz, besteak beste. Gai izan behar dugu administrazio publiko elektronikoa osoa, integratua eta gainerako sistema eta administrazioekin elkarrengingarria edukitzeko.

Hau ez da halakoren edo bestearen arazoa, guztion arazoa da.

Azken batean, Foru Komunitateko Administrazioaren lidergo irmoa, elkarlana eta parte-hartzea di-rela medio, erronka handi horri aurre egiten ahalko zaio.

Alkatea, Jesús Arrizubieta Astiz.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Antsoingo Udaleko alkateak eta Noingo Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioetan datu berriak eman dira eta behin-behineko txostena aldatu egin dugu horien arabera.

Bestalde, txostenari erantsi zaio Tafallako Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioa, egindako fiskalizazioari buruzko ohar bat dela eta haren edukia aldarazten ez duela iritzita, eta behin-behineko txostena behin betikoa bilakatu da.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga